

**MERKATARITZARENTZAKO ETA TOKIKO AISIA TURISTIKOAREN
SEKTOREARENTZAKO PROIEKTU PILOTUAREN FUNTZIONAMENDUA ARAUTZEKO
OINARRIAK.**

**“TOKIKO PRODUKTU PROPIOAREN SUSTAPEN TURISTIKOA DONOSTIAKO
OSTALARITZA ESTABLEZIMENDUETAN”**

2024

Proiektu pilotu hau Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planaren markoan gauzatzen den “Donostiako Helmugako Turismo Jasangarritasuneko Plana (HTJP)” (2022-2024) delakoaren jardura esparrukoa da, Europar Batasunak (Next Generation EU funtsak) eta Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioak, baita Eusko Jaurlaritzaren Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak ere finantzatua.

1. HELBURUA

"Donostiako ostalaritza establezimenduetan tokiko produktu propioaren sustapen turistikoa" egiteko proiektu pilotuan parte hartuko duten dendetako produktuak aurkezteko eta hautatzeko baldintzak ezartzea da Oinarri hauen helburua.

2. PROIEKTUAREN TESTUINGURUA

DONOSTIAKO SUSTAPENA SA (aurrerantzean, "Antolatzailea" edo "SUSTAPENA"), A20001681 IFK eta San Roke kalea 120, Donostia (Gipuzkoa) helbidea duena, Donostiako ostalaritza establezimenduetan tokiko produktu propioaren sustapen turistikoa egiteko proiektu bat prestatzeko lanean ari da, abiapuntutzat hartuta Donostia hiriaren egoera – arrakastatsua, baina, aldi berean, hauskorra–, non bai hiria, bai merkataritza, baita aisia eta turismo sektorea ere, jabetu baitira turistak fidelizatu behar direla, helmuga erakargarri bihurtzen duten baliabideak eta balioak zaindu behar direla eta erabakitasunez aurrera egin behar dela helmugaren jasangarritasuna eta digitalizazioa lortzeko bidean.

Jokaleku gero eta globalizatuagoan sektorearen lehiakortasuna mantentzen jarraitzeko, eta – lehiakortasun faktore gisa sektorearen digitalizazioa oinarri hartuta– sektore horren garapen berritzailearen alde apustu egiteko bultzatu du SUSTAPENAK proiektu pilotu hau.

Proiektu pilotua Europar Batasunak (Next Generation EU) finantzatuko du, hain zuzen, honako erabaki honen babespean: 2021eko abenduaren 23ko Ebazpena, Estatuko Turismo Idazkaritzarena, Turismo Sektoreko Biltzarraren Akordioa argitaratzen duena; akordio horren bidez, ezartzen dira toki erakundeek Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planeko 14. osagarriaren 1. inbertsioaren esparruan egiten dituzten inbertsio jarduerak finantzatzeko kreditua banatzeko irizpideak, baita aipatu kreditua irizpide horiek aplikatu ondoren autonomia erkidegoetan banatzeko modua ere.

- Aipatu ebazpena betez finantzatzen diren jarduerak eta zenbatekoak azal honen II. eranskinean dagoen taulan berdez markatutako zutabeetan agertzen dira.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra – Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren bitartez– eta Donostiako Udalak sinatu duten hitzarmena, Europar Batasunaren Next Generation EU funtsen bidez finantzatzen den Euskadiko Helmugako Turismo Jasangarritasuneko Lurralde Planari dagokion Donostia Helmugako Turismo Jasangarritasuneko Plana gauzatzeko.

"Tokiko produktu propioaren sustapen turistikoa Donostiako ostalaritza establezimenduetan" proiektuaren helburu nagusia hiriko saltokietako produktu propioak –digitalizazioaren erronkarekiko konpromisoa dutenak– nabarmentzea eta erakustea da.

3. PROIEKTUAREN EZAUGARRIAK



Hasiera-hasieratik, SUSTAPENAK konprometituta egon da saltokietan transformazio digitalaren prozesua bultzatzeko, baita gai horren inguruko prestakuntza eta laguntza emateko ere. Teknologia disruptiboa erabiliz, tokiko dendariak diseinatutako produktu propioak hiriko 5 hotel ospetsu bisitatzeko dituzten pertsonen ezagutaraztea da asmoa.

Horrela, hotelaren eta tokiko ekoizle/diseinatzaile den enpresaren arteko lankidetzan beste urrats bat ematea proposatzen da, teknologia eta aurrez-aurrekotasuna bateratzen dituen esperientzia nahasketa bat sortuz. Ondorioz, tokiko produktuen birtualtasun teknologikoaren eta erakusketaren bidez bultzatzen da tokiko produktu horiek sustatzeko eskaintza.

Hain zuzen ere, proiektu honen bidez, ikusgarritasuna eman nahi zaie tokiko dendei eta, bereziki, tokiko merkatarien artisau produktuei. Horretarako, produktuen aurkezpena egiteko, 5 hotel inguru hautatuko dira. Aurkezpena egiteko espazio bakoitzean, proiektuan parte hartzen duten produktu guztiak erakutsiko dira. Guztira, 10 dendak (gehienez) hartuko dute parte eta 1-2 produktu hautatuko dira tokiko denda bakoitzeko.

Produktu horiek erakusteko erabiliko den euskarri eta teknologiarik dagokienez, hologramak ikusteko gailuak izango dira (75 cm x 75 cm), klororik gabeko binilozko kutxa baten gainean jarritakoak, Full HD irudi kalitatea dutenak. Proiektu pilotua gutxi gorabehera hilabetez gauzatu beharko da parte hartuko duten hoteletan, ziur aski, 2024ko martxotik apirilera bitartean. Proiektuaren iraupen osoa –martxan jartzen denetik produktuak hoteletan aurkeztu arte– 4 hilabete ingurukoa izango da.

Proiektua garatzeko epea aldatzea eskatzen duten salbuespenezko egoerak (osasun egoera, antolaketa egoera eta abar) sortuz gero, Donostiako Sustapenak beretzat gordetzen du aipatutako data aldatzeko eskubidea, hautatutako dendei horren berri eman eta gero.

Proiektuan parte hartzeko, ekoizpen propioa eta/edo artisau ekoizpeneko produktuak dituzten saltoki guztiek eskaera aurkeztu ahal izango dute, posta elektronikoz, 5. apartatuan ("Eskaerak eta epea") ezartzen den moduan. Horretarako, beren produktua "Tokiko produktu propioaren sustapen turistikoa Donostiako ostalaritza establezimenduetan" ekimenean aurkezteko interesa agertu beharko dute, ezarritako bideak erabiliz.

Eskaerak aurkezteko epea behin itxita eta parte hartuko duten saltokiak hautatuta, teknologiarik hornitzailea enpresa ekoizle/diseinatzaileekin harremanetan jarriko da bakoitza bisitatzeko egutegia finkatzeko eta, kasuan-kasuan, honako hauek egiteko:

- Hautatutako tokiko merkataritza establezimenduak bisitatzeko.
- Aurkezpena egiteko espazioa edo beharrezko materiala aztertzea.

- Saltokiari aholkuak ematea proba pilotu honetarako egokienak diren produktuak hautatzeko, produktuak bistaratzeko erabiliko diren teknologien ezaugarri teknikoak kontuan izanik.

4. PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

Proiektu pilotu honetan parte hartu nahi duten saltokiek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

- Jarduera ekonomikoa garatzen duen merkataritza establezimenduak Donostiako udal mugartean egon behar du.
- Produktuek honako ezaugarri hauetako bat izan beharko dute:
 - Artisau produktuak izatea edo ekoizpenean material ekologikoak erabiltzea.
 - Diseinu propioko produktuak izatea eta/edo tokiko materialekin egindako produktuak izatea.
 - Produktu originalak eta bereziak izatea.
 - Produktu berritzaileak izatea.
 - Pertsonaren ekipamenduarekin, elikadurarekin, bitxigintzarekin, arte eta eskulanarekin zerikusia duten produktuak izatea.
 -
- Saltoki eskatzaileek gutxienerako stock bat (3 izakin) bermatu beharko dute, programan parte hartzeko proposatzen duten produktu bakoitzeko. Pieza bakarrak izanez gero, antzeko alternatibak eduki beharko dituzte gutxienez hilabetez, eskaera egiten denetik.

5. ESKAERAK ETA EPEA

5.1 ESKAERAK

Programan parte hartu nahi duen saltoki bakoitzak eskaera bat egingo du, aurkeztu nahi duen produktu mota eta sorta deskribatuta.

Parte hartu nahi duten guztiek eskaera online aurkeztu beharko dute, behar bezala beteta dagoen eskabide orria erantsita.

Azpimarratu behar da proiektuan parte hartzea borondatezkoa dela eta hautaketa prozesua Donostiako Sustapenak oinarri hauen 7. artikuluan ezarri dituen irizpideei jarraikiz gauzatuko dela.

Sustapenak beretzat gordetzen du parte hartzeko eskaera ukatzeko eskubidea, saltokiak ez baditu betetzen ezarritako baldintzak edo proposamenean irregulartasunen bat detektatzen bada.

Edozein informazio eskatzeko edo kontsulta egiteko, 943.482800 telefono zenbakira deitu edo fomentoss@donostia.eus helbidera idatzi beharko da, gaian "Tokiko produktuaren sustapen turistikoa" adierazita.

5.2 EPEAK

Eskaerak aurkezteko epea 2024ko otsailaren 2tik 2024ko otsailaren 9ko 23:59etara arte izango da. Donostiako Sustapenak beretzat gordetzen du eskaerak aurkezteko epea luzatzeko eskubidea; gainera, denda kopurua nahikoa ez bada, eskaerak aurkezteko epe berri bat ireki ahal izango du.

6. ESKAERETAKO AKATSAK ZUZENTZEA

Dokumentazio osoa aztertu ondoren eskaeraren atal batzuk bete gabe daudela edo dokumenturen bat erantsi ez dela ikusten bada, errekerimendua egingo dio pertsona edo entitate eskatzaileari 3 egun balioduneko epean, zuzendu beharra komunikatzen denetik, eskaera bete edo nahitaezko dokumentuak aurkez ditzan; halaber, jakinaraziko zaio hori egin ezean eskaera baztertu egingo dela, bestelako izapiderik gabe, ondorioz, horri buruzko ebazpena emanaz.

Donostiako Sustapenak azalpenak eska ditzake, beharrezkoa dela ikusten badu.

7. ESKAERAK IZAPIDETZEA ETA BALORATZEA.

"Tokiko produktu propioaren sustapen turistikoa Donostiako ostalaritza establezimenduetan" programan parte hartu nahi duten saltokien eskaerak jasota, Donostiako Sustapenak osatutako taldeak jaso diren eskaerak ebaluatzeari ekingo dio.

Eskaeren ebaluazioan aurkeztutako produktuak aztertuko dira eta horietako bakoitzaren izaera baloratuko da: artisau produktua izatea, material ekologikoekin ekoiztea, diseinu propioa, tokiko materialak erabiltzea, originaltasuna eta aniztasuna eta izaera berritzailea.

Balorazio irizpideak	Puntuazioa
Artisautza prozesua eta material ekologikoak erabiltzea.	15 puntu
Diseinu propioa eta erabilitako materialen tokikotasuna.	15 puntu
Produktuen originaltasuna eta aniztasuna.	5 puntu
Izaera berritzailea.	5 puntu
DSS Market Plaza plataformaren erabiltzailea izatea.	5 puntu

Balorazio irizpideen azalpena:

- Artisautza prozesua eta material ekologikoak erabiltzea: eskuz edo eskuzko erremintekin egindako produktuak baloratuko dira, baita bitarteko mekanikoekin egindakoak ere, betiere artisauek zuzenean egiten duen eskuzko lana bukatutako produktuaren osagai garrantzitsuena bada. Era berean, modu jasangarrian eta ingurumena zainduz kudeatutako lehengaiekin egindako produktuak, produktu ekologikoak eta antzekoak baloratuko dira.
- Diseinu propioa eta erabilitako materialen tokikotasuna: **kontuan izango da diseinuaren egilea saltokia bera eta bertako langileak izatea, baita nagusiki tokiko hornitzaileengandik eskuratutako materialekin eta/edo lehengaiekin egindako produktuak izatea ere.**
- Produktuen originaltasuna eta aniztasuna: aurkeztutako produktuaren originaltasuna eta –mota bereko beste produktuekin konparatuta– desberdina izatea izango da kontuan.
- **Izaera berritzailea: tokiko merkatuan** bereizten diren produktuak baloratuko dira, produktu eksklusiboak eta esperientzia bereizgarriak edo pertsonalizatuak sortzeko ekoizten direnak.
- **DSS Market Plaza plataformaren erabiltzailea izatea: kontuan izango da** DSS Market plaza **plataformaren erabiltzailea izatea.**

Jasotako eskaerek gehienez ere 45 puntu jasoko dituzte eta gutxienez 25 puntu izango da. 25 puntuko gutxienez 25 puntu jaso ez duten eskaerak baztertu egingo dira. Puntuazio handiena jaso duten 10 saltoki hautatuko dira.

Parte hartzeko eskaera onartzeko edo ukatzeko erabakia Donostiako Sustapenaren web orrian (www.fomentosansebastian.eus) argitaratuko da eta Donostiako Sustapenak esanbidezko ebazpena emango du. Nolanahi ere, Donostiako Sustapenak epe hori luzatzeko eskubidea izango du.

Aurrekoa gorabehera, Sustapenak eman zaizkion datuak egiaztatzeko beharrezkotzat jotzen duen edozein informazio eta dokumentu osagarri eskatu ahal izango dio eskatzaileari.

Dokumentazioa aurkezteko epeak bete ezean, eskatzaileak atzera egin duela joko da, Sustapenak epea luzatzea onartzen ez badu, interesdunak arrazoi justifikatuak emanaz luzapena eskatu ondoren.

8. SALTOKIEN BETEBEHARRAK

- A) Saltokiak modu aktiboan parte hartuko du proiektuan, horren iraunaldi osoan.
- B) Produktuek kasuan-kasuan aplikatzen diren higiene- eta segurtasun-baldintzak bete beharko dituzte.
- C) Saltokiak teknologia hornitzailearen bisitak egiteko egutegia eta filmaketarako egutegia lehenbailehen finkatzeko prestasuna bermatuko du, filmaketak egin ahal izateko, baita horretarako produktua filmaketarako toki batera eraman behar denean ere.
- D) Filmaketa saltokian bertan egiten denean, saltokiak teknologia hornitzailearekin adostutakoaren arabera establezimendua prest izatea bermatu eta konpromisoa hartu beharko du.
- E) Saltokiak proiektuaren iraunaldian konprometitutako stocka badaukala bermatu beharko du.
- F) Saltokiak parte hartuko du proiektuarekin zerikusia duten sustapen jardueretan.
- G) Saltokiak oinarri hauetan ezarritako baldintza eta betebeharrak guztiak bete beharko ditu. Bestela, Sustapenak saltokia proiektutik kanpo uzteko eskubidea izango du.

9. KONTRATUA DESEGITEA

Jarraian zerrendatzen diren etako edozein izan daiteke kontratua desegiteko arrazoi, besteak beste:

- Saltokiak oinarri hauetan eta kontratuan bertan ezarritako parte hartzeko baldintza edo betebeharrak bat ez betetzea.
- Titularra hiltzea.

Horrelakoetan, Donostiako Sustapenak kontratuak desegin ahal izango ditu, establezimenduei kalte-ordainik edo konpentsaziorik eman behar gabe.

10. DATUAK BABESTEIA

Datuak babesteko indarrean dagoen araudian xedatutakoaren arabera, jakinarazten da emandako datuak Donostiako Udalak tratatuko dituela, tratamenduaren arduradun moduan, eta Donostiako Sustapena SAK informazioa kudeatuko duela tratamenduaren eragile moduan.

Tratamenduaren helburua Donostiako ostalaritza establezimenduetan tokiko produktuaren sustapen turistikoa egiteko 2023ko programan parte hartzea izapidetzea eta kudeatzea da.

Tratamenduaren zilegitasunaren oinarria DBEOren 6.1.b) artikulua da, tratamendua beharrezkoa da interesduna parte den kontratu bat gauzatzeko (oinarri arautzaileen onarpena), DBEOren 6.1.e) artikulua: tratamendua beharrezkoa da interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari esleitutako botere publikoaren izenean burututako eginkizun bat betetzeko: 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituena;

2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa; eta 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorra.

Oinarri hauetan edo eskabide inprimakietan hala adierazten bada, datu pertsonalei buruz eskatzen den informazioa derrigorrez eman beharko da, eta datu okerrak emateak edo daturik ez emateak eskabidea kudeatzea galaraziko du.

Ez da aurreikusten datuen komunikazio gehigarririk, ezta datuen nazioarteko transferentziarik ere, legeak hala agintzen ez badu.

Tratamendu honen xede diren datu pertsonalak bildu diren helburua betetzeko eta helburuaren eta tratamenduaren ondorioz sor daitezkeen erantzukizunak zehazteko behar den denboraz gordeko dira. Artxiboei eta dokumentazioari buruzko araudian xedatutakoa aplikatuko da.

Eragindako pertsonak datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeke eskubideak baliatu ahal izango dituzte hala dagokionean, baita datuak babesteko indarrean dagoen araudian ezarritako beste eskubide batzuk ere, Donostiako Udaleko Udalinfo zerbitzuaren bitartez: Ijentea kalea 1, 20003 Donostia.

Interesdunak bere eskubideak baliatzeko garaian behar bezalako arreta jaso ez badu, erreklamazio bat aurkeztu ahal izango du Datuak Babesteko Euskal Bulegoan. Helbidea: Tomas Zumarraga Dohatsuaren kalea 71, 3. solairua, 01008 Vitoria-Gasteiz. Hala ere, aldeztu aurretik, datuen babeserako Donostiako ordezkariarekin harremanetan jartzeko aukera izango du: dbo@donostia.eus.

11. AZKEN XEDAPENA

Oinarri hauek Donostiako Sustapenaren webgunean argitaratuko dira eta argitaratzen diren egunean bertan jarriko dira indarrean. Interesdunek eskaera aurkezteak esan nahi du Oinarri hauek osorik onartzen dituztela eta eskatzaileak konpromiso atzeraezina hartzen duela berriazko arauak eta Erakundeak proiektua behar bezala gauzatzeko ezar ditzakeen xedapen zehatzak onartu eta betetzeko.

Hautatutako pertsona/enpresa aurkeztutako dokumentazio osoaren egiazkotasunaren, baita jardueraren aurretiko eta ondorengo jarduketan ondorioz sor daitezkeen kalte pertsonal eta material guztien ere erantzule bakarra izango da, eta Donostia Sustapenak ez du inolako erantzukizunik izango kontzeptu horiengatik.

Donostia, 2023ko azaroaren 28a

Iñigo Olaizola Arcaute

Donostiako Sustapena SAko zuzendari kudeatzailea